



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

UDALA ERATZEKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: ez-ohikoa

Eguna: 2023.12.16

Ordua: 10:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak: Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Adin-mahaia eratzea.
2. Korporazioa eratzea.
3. Alkatea hautatzea.
4. Ez-ohiko kontaketa eta ondasunen inbentarioa egiaztatzea.

1. ADIN-MAHAIA ERATZEA.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan xedaturikoari jarraiki, zinegotzi-egiaztatunak jaso ondoren, bertaraturako zinegotzien artean adinez nagusienak eta gazteenak, udal idazkariarekin batera, Adin-mahaia osatu dute:

- Zinegotzi adinez nagusiena: Saturnino Larralde Ibarrola.
- Zinegotzi adinez gazteena: Julen Oskoz Elizondo.
- Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte.

2. KORPORAZIOA ERATZEA.

Adin-mahaiak Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak udalari igorritako ziurtagirietan oinarrituta, horiek hautetsiek aurkeztutako zinegotzi-egiaztatunekin bat datozela egiaztatzen du.

Halaber, Adin-mahaiak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7. artikuluan xedaturikoaren arabera eta hori betez, bertan diren hautetsi guztiek udaletxeko idazkariaren aitzinean izan ditzaketen bateraezintasun arrazoi posibleei buruzko eta diru-sarrerak ematen dizkien edo eman diezazkieketen edozein jarduerari buruzko eta ondare-ondasunei buruzko aitorpena aurkeztu dituztela egiaztatu du.

Jarraiki, hautetsiek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute modu honetan eta idazkariak, legez agintzen duen galdera egin ondoren:

"Denen aitzinetan, zin edo promesa egiten duzu zure karguaren betebeharrak zintzotasunez beteko duzula, Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa betez eta betearaziz?"

- Saturnino Larralde Ibarrolak, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Leire Mitxelena Gamiok, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Igor Ugalde Salazarrek, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Ana Maeztu Villanuevak, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Andoni Mitxelena Danborienak, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Itziar Arotzena Bergarak, promes egin du, legeak hala beharturik.
- Julen Oskoz Elizondok, promes egin du, legeak hala beharturik.

Ondorioz, zinegotzi guztiek osoko bilkuran daudelarik, Adin-mahaiak udala eratutzat jo du.

Hona hemen zinegotzien zerrenda:

- Saturnino Larralde Ibarrola.
- Leire Mitxelena Gamio.
- Igor Ugalde Salazar.
- Ana Maeztu Villanueva.
- Andoni Mitxelena Danboriena.
- Itziar Arotzena Bergara.
- Julen Oskoz Elizondo.

3. ALKATEA HAUTATZEA.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan xedaturikoari jarraiki, Adin-mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak adierazi ditu, hau da, zerrendaburuak direla hautagaiak.

Kasu honetan, Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bilduren zerrendaburua izanik, bozketari ekin zaio et lortutako botoak 7 izan dira.

Bozketaren arabera eta zinegotzien gehiengoarekin, SATURNINO LARRALDE IBARROLA da alkate.

Ondoren, Saturnino Larralde Ibarrolak onartu du alkate izatea. Horrela bada, osoko bilkuraren aitzinean promes egin du alkatearen karguaren betebeharrak zintzoki beteko dituela, Erregearekiko leialtasunez eta Konstituzioa Estatuaren oinarrizko arau gisa bete eta betearaziz.

Horrela bada, Saturnino Larralde Ibarrolak hartu du kargua.

4. EZ-OHIKO KONTAKETA ETA ONDASUNEN INBENTARIOA EGIAZTATZEA.

Idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio osoko bilkurari, zinegotziek azter ditzaten:

- 2022ko diruzaintza-egoera eta kontaketa akta. Halaber, 2022ko kontuak oraindik itxitzekoak direla adierazi du idazkariak.
- 2022 urte bukaerako udal maileguaren egoera.
- Udalak gaur egun dirutan eta baloreetan dituen izakinen egiaztagiriak.

Bertzerik gabe, 10:20ak direnean, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

ALKATEA O^oE^o



Saturnino Larralde Ibarrola



Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,



Nagore Madariaga Iriarte

